

TEKNOLOGIA

Teknologiaren demokratizazioa



DIANA FRANCO

Gogoan dut orain dela 20 urte Google enpresa zenak bere hodeian ofimatika baliabideak atera zituenean izan nuen zirrara. Berrikuntza iraultzailea izan zen. Denbora igaro zen, eta bere negozio ereduaren norabidea ulertzen joan ginen, berandu zen ordea, gure bizitzetako eremu zaurgarrietan sartuta genuen bere sistema: hezkuntza, etxea, osasuna...

Egun, zenbait adituk dio Google-en sistema ordezkaturiko duen beste berrikuntza baten aurrean gaudela. Googlek erabili zuen estrategia berarekin, gure bizitzak errazteko tresna berri bat sartzen ari da gizartean: adimen artifiziala. Eremu guztietan sartu nahi da, lan prozesuak modu eraginkorragoan egiteko ahalmena baitu, eta horrek abantaila lehiakorrek ekarriko ditu, beraz ez erabiltzearen beldurra dago airean, atzean geratzearen beldurra.

Adimen artifiziala denon eskura izateari adimen artifizialaren demokratizazioa deitu diote, hau da, edozeinek nahiko modu errazean bere lan/sorkuntza prozesuetan adimen artifizial eskuragarri baten laguntza izateko aukerari. Baina batzuek jada ikasi dugu zeinen erraz egiten diren eremu digitalean gizakiok gizarte analogikoetan lortzen zailak izan ditugun onurekiko analogiak... Adimen artifiziala demokratizatzaren ideia azpian zer dago orduan? Erantzuna ez da zaila, gizakion arteko joko zaharra baita, menderatzearen jokoa, non joko taula berria sortu nahi den, botere harreman berriekin.

Arrakala digitalaren inguruan lan egiten dut, eta azaltzen dudan lehenengo gauzeta bat da teknologia bat izatea dela beraz zerotik sortzeko aukera izatea. Teknologia sortzeko aukerak ez ditugunok erabiltzailak gara. Egun, gero eta zailagoa da teknologia izatea. Inoiz baino arrisku handiagoa dugu mendekotasun teknologiko posizio batean bizitzeko. Baina noski, errealitateak ez du zertan bakarria izan; hori bai, errealitate horri aurre egiteko irudimen ugari izan beharko dugu. Erabiltzailez beteriko herriak baino, hiritarrez beteriko herriak izatera bideratuko gaituen irudimena behar dugu. ●

NAZIOARTEA



GETTY IMAGES

Borrokan diren bi aldeetako buruak: Mohamed Hamdan Hemedti eta Abdelfatah al-Burhan.

Gerratik gerrara, orain Sudan

AXIER LOPEZ

Pasa den astean orriotan idatzi genuen Yemengo gerra odoltsuari amaiera emateko lehen pausoak ematen hasi direla. Preso trukaketa, nazioarteko eragileak tarteko dituen bake negoziak... Baina, handik kilometro gutxira, Itsaso Gorriaren beste itsasbaterrean, gerra piztu da.

Hilaren 15etik Sudanen, Jartum hiriburuan eta beste hiri batzuetan, lisakar gogorrak izan dira militarren eta paramilitarren artean. Egun gutxitan 420 pertsona baino gehiago hil dira eta gutxienez 3.700 zauritu, NBERen datuen arabera.

Jartumen bost milioi pertsona baino gehiago bizi dira eta janari, ur, elektrizitate eta erregai eskasia gero eta larriagoa da. Herrialdeko aire-espazioa itxita dago eta hainbat ospitale eta aireportu bonbardatu dituzte.

Bi jeneral daude aurrez aurre. Abdelfatah al-Burhan, Sudango Armadak lagunduta, eta Mohamed Hamdan Hemedti Laguntza Azkarreko Indarrak (RSF, ingelesezko siglak) talde paramilitarren buru. Omar al-Bashir diktadorearen itzalean hazi ziren biak. 2019ko abuztuan herri-matxinada batek diktadorea boteretik kendu eta trantsizio-gobernua ezarri zuen. Baina, berriz ere biek batera parte hartu zuten 2021eko urriko estatu kolpean. Are gehiago, bi buruzagiek

Yemenen aurkako erasoan eta gerran parte hartu dute.

Al-Burhan jenerala Sudango trantsizio kontseiluko presidentea da, eta de facto herrialdeko liderra. Hemedti ezaguna da Darfurko genozidioan parte hartzeagatik, 500.000 pertsona inguru hil zituzten 2003 eta 2010 artean. Hemedtik orduan erabilitako indar armatuak egungo RSF bihurtzea lortu zuen, eta urrearen legez kanpoko esplotazioari eta kontrabandoari esker dirutza lortu zuen.

Sudan duela urte batzuk iparraldearen eta hegoaldearen artean banatutako herrialdea da -Hego Sudanek independentzia lortu zuenetik ez du erabateko bakerik ezagutu-. Munduko hirugarren urre-ekoizlea da, eta 40.000 erauzketa-eremu baino gehiago ditu. Urrea erauzteko erabilten den zianuroa eta merkurioa ingurumen- eta osasun-kalte handiak eragiten ari dira.

Sudango meatzeetan interesak dituzten nazioak ez dira gutxi, eta aberastasun iturri horri gehitu behar zaio Itsaso Gorriaren inguruan duen posizio estrategikoa, 600 kilometro baino gehiagoko kostaldea baitu. Egiptok tropak ditu Sudango lurretan, eta Errusiak, Wagner talde paramilitar ezagunaren bidez, ageriko eragina du. ●